

Donostia, 2024ko ekainaren 20a

72/24 PRENTSA OHARRA

EKAINAREN 23TIK AURRERA DBUS-EK ZERBITZU GEHIAGO EMANGO DITU UDAN

Ekainaren 23an, igandean, San Joan bezperan, **Dbuseko udako zerbitzuak hasiko dira**, eta abuztuaren 31ra arte, larunbata, eskainiko dira. Udan, halaber, Dbusek zerbitzu bereziak eskainiko ditu denboraldiko ekitaldirik garrantzitsuenetarako.

Era berean, uda honetan berriro jarriko da abian Illunbeko aparkalekuaren eta hiriko erdialdearen arteko **anezka zerbitzua**.

1. Anezka zerbitzua Illunbeko aparlekutik erdialdera

Uztailaren 13tik aurrera, larunbata, irailaren 1era arte, igandea, Dbusek eta Donostiako Udalak, Mugikortasun Departamentuaren bitartez, **autobus anezka zerbitzua** jarriko dute berriro, Illunbeko aparkalekua eta hiriko erdialdea lotzeko.



Anezka zerbitzu horrek **Illunbeko doako aparkalekuaren** eta Donostiako erdialdearen arteko joan-etorriak errazten ditu, hirian garraio publikoa sustatzeko eta trafikoa murrizteko helburuarekin. Erabiltzaileek hiriko **auzo guztietara doako transbordoak** egiteko aukera izango dute. Era berean, Mugi txartelik ez duten bidaiariek bidaia ordaindu ahal izango dute Dbuseko sarean onartutako edozein titulurekin: noizbehinkako txartela, BAT, BARIK eta QR edo EMV titulu digitalak.

Anezka zerbitzua **20 minutuan behin** izango da, **egunero, uztailaren 13tik, larunbata, irailaren 1era, igandea**, eta, orain bezala, **bi geltoki** izango ditu:

- **Illunbeko geltokia:** Irteerak 11:00etatik 22:20ra, 20 minutuan behin
- **Mendeurreneko plazako geltokia:** irteerak 11:10etik 22:30era, 20 minutuan behin.

Azken urteetan, zerbitzua urteko bi garaitan eskaini da, Gabonetan eta udan, eta herritarrek ondo hartu dute zerbitzua.

2. Gautxori zerbitzua, ekainaren 23an, San Joan bezperan

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, Dbusek auzoetara dituen autobus zerbitzuen ordutegiak luzatuko ditu eta 1:00ak arte egongo dira gautxori zerbitzuak Bulebarretik.

Hauek izango dira zerbitzuak:

LINEA	IRTEERA GEHIGARRIAK <u>BULEBARRETIK</u>
5-BENTA BERRI	23:00– 23:40 Zerbitzu gehiagorako, ikusi 25 linearen ordutegia, Antiguan ere ematen baitu zerbitzua.
8-GROS-INTXAURRONDO	23:00
9-EGIA-INTXAURRONDO	23:00– 0:00* Okendo 18tik (*zerbitzua Monsera, Garrora eta Zubiaurrera)
13-ALTZA	23:30* (*Buenavistatik) - 23:45 - 00:00** (**Juan XXIII.etik eta Buenavistatik)
14-BIDEBIETA	22:40– 23:00 Gipuzkoa plazatik (* Zubiaurretik)
16-IGELDO	23:05– 00:00 Bulebarra 19tik
18-SEMINARIOA	22:30– 23:00– 23:45 Gipuzkoa plazatik
19-AIETE-BERA BERA	22:00– 22:20– 23:00– 00:00 Gipuzkoa plazatik Zerbitzua Aiete pasealekura eta Bera Berara
23-ERRONDO-PUIO	22:30– 23:30 Urbietara 38tik
25-BENTA BERRI-AÑORGA	23:15– 0:00* (*Zerbitzua Antiguara, Beriora eta Añorgara)
26-AMARA-MARTUTENE	23:00– 23:30– 00:00
28-AMARA-OSPITALEAK	23:15 Ikusi 26 linearen ordutegia, Amaran ere ematen baitu zerbitzua
32-PUIO-ERRONDO	23:00– 00:00 Urbietara 38tik
B1-BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA	01:00

B2-AIETE-BERA BERA	01:00
B3-EGIA-INTXAURRONDO	01:00
26-AMARA-ERRIBERAK-MARTUTENE	01:00
B6-ALTZA	01:00
B7-IGELDO	01:00
B8-MIRAKONTXA-BENTABERRI-SEMINARIOA	00:30
B9-AMARA-ERRONDO-PUIO	00:30
B10-ZUBIAURRE- BIDEBIETA-BUENAVISTA	00:30


3. Dbus zerbitzu gehiago auzoetara

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, hiriko gune gehienetan aparteko zerbitzuak egongo dira; izan ere, udan autobusek beranduago egingo dituzte azken irteerak, eta asteko egun guztietan zerbitzuak beranduago bukatu dira. Hauek dira zabalitzen diren ordutegiak:

LINEA	UDAKO AZKEN IRTEERAK
5-BENTA BERRI	23:40
8-GROS-INTXAURRONDO	22:22* – 23:00 (*22:30 larunbatetan eta igandeetan/jaiegunetan)
14-BIDEBIETA	22:40– 23:00
16-IGELDO	22:35– 23:05– 00:00
18-SEMINARIOA	22:30– 23:00
19-AIETE-BERA BERA	23:00
23-ERRONDO-PUIO	22:30
25-BENTA BERRI-AÑORGA	23:20* – 00:00 (*23:15 larunbatetan eta igandeetan/jaiegunetan)
26-AMARA-MARTUTENE	23:00– 23:30– 00:00
29-HEGO INTXAURRONDO SUR	22:45
32-PUIO-ERRONDO	22:45* (*22:00 igandeetan/jaiegunetan)

36 SAN ROKE-ALDAKONEA	<p><i>Askatasunaren hiribidetik San Roke-Matjarantz:</i></p> <p>Lanegunak: 22:10– 22:40</p> <p>Larunbatak: 22:40– 23:10</p> <p>Igandeak/Jaiegunak: 21:10– 22:10</p>
	<p><i>Askatasunaren hiribidetik Konkorreanantz:</i></p> <p>Lanegunak: 22:20– 22:50</p> <p>Larunbatak: 22:20– 22:50– 23:50</p> <p>Igandeak/Jaiegunak: 21:50– 22:50</p>

Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan **gautxori aurreko ohiko zerbitzuak** egongo dira. Gautxori aurreko zerbitzuak dira eguneko lineen azken zerbitzuetatik (gutxi gorabehera 22.00h) Gautxoriak hasten diren arte (gutxi gorabehera 0:15h) ematen direnak. Hau da, zerbitzu batzuk bestekin lotzen dituztenak. Gautxori aurreko zerbitzuen geltokiak Bulebarraren eta Gipuzkoa Plazaren inguruan daude.



4. Gautxori zerbitzu gehiago ostiral, larunbat eta jai bezperetan

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, asteburuko gautxori zerbitzuak goizaldeko 4:00etan amaituko dira, ostiral, larunbat eta jai bezpera guztietan. Bulebarretik irtengo dira.

B1-BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA

B2-AIETE-BERA BERA

B3-EGIA-INTXAURRONDO

26-AMARA-ERRIBERAK-MARTUTENE
 B6-ALTZA
 B7-IGELDO
 B8-MIRAKONTXA-BENTABERRI-SEMINARIOA
 B9-AMARA-ERRONDO-PUIO
 B10-ZUBIAURRE-BIDEBIETA-BUENAVISTA

LINEAK	OSTIRALAK/JAI BEZPERAK	LARUNBATAK
B1-B2-B3-B6	1:00etik 4:00etara, 60 minutuan behin.	0:30etik 4:00etara, 30 minutuan behin.
B4	0:15 + 1:00etik 4:00etara, 60 minutuan behin.	0:15h + 0:00etik 4:00etara, 30 minutuan behin.
B7	01:00– 02:00	01:00– 02:00
B8-B9-B10	00:30etik 3:30era, 60 minutuan behin.	00:15etik 3:45era, 30 minutuan behin.

5. Zerbitzu bereziak udako ekitaldietarako

Aparteko autobus zerbitzuak egingo dira hirian udan egin ohi diren ekitaldietarako (Jazz Jaialdia, Aste Nagusia, kontzertuak, etab.). Informazioa ekitaldi bakoitzean emango da bereziki.

6. Maiztasun handiagoa 24 eta 27 lineetako autobusetan

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, jaiegunetan 24-Altza-Gros-Antigua-Intxaurrondo eta 27-Altza-Intxaurrondo-Antigua-Gros lineetan **autobusak 30 minutuko maiztasunez ibiliko** dira, izan ere, hil horietan asteko egun guztietako ordutegiak bateratuko dira.

7. Gaueko zerbitzua Igeldora ekainaren 23tik

Ekainaren 23tik aurrera, igandea eta abuztuaren 31ra arte, larunbata, 16 lineak zerbitzu gehiago emango ditu Gipuzkoako plazatik, 23:05ean eta 0:00etan beste bi irteera gehiagorekin.

Era berean, ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte Igeldo auzoak autobus zerbitzua izango du gauean, ostiral, larunbat eta jai bezperatan, **B7-IGELDO GAUXORIA**ekin. Gautxoria 1:00etan eta 2:00etan aterako da Bulebarretik, eta Kontxa pasealekutik joango da zuzenean Igeldoraino eta Kanpinerraino.

8. 39-Urgull lineak ez du zerbitzurik emango udan

2024ko udan, Dbuseko 39-Urgull mikrobus lineak ez du zerbitzurik emango.

Salto Batean / En un salto komunikazio kanpaina

Udako zerbitzu berriekin batera, Dbusek komunikazio kanpaina bat jarri du abian, herritarrak eta uda sasoiaren hiria bisitatzen duten pertsona guztiak udako hilabeteetan hiriko txoko eta eskaintzen diren plan guztietara iristeko **garraio publikoa erabiltzera bultzatzeko**. Kanpaina fresko eta dibertigarria da, eta **Dbusen elementurik ikoniko eta adierazgarriena** du protagonista: igela. Animalia hori nahi duen lekura **arin iristeko** gai da, **salto batean!**, hori eginda baino ez. Eta simil horrekin herritarrak eta bisitariak gonbidatzen dira garraio publikoa erabiltzera, hiriko edozein toki eta planetara joateko.

Kanpaina **Donostiako udaren adierazgarri diren plan batzuen 5 irudik** osatzen dute, igela protagonista izanda, eta datorren ekainaren 21etik aurrera markesinetan, autobusetan, Dbusen webgunean eta sare sozialetan egongo da ikusgai.



Era berean, eta udako kanpainaren osagarri gisa, Dbusek Bide Indarkeriari Stop elkartearekin lankidetzan jardun du Oscar Terol aktorea protagonista duen spot bat egiten, eta bertan herritarrak **garraio publikoa erabiltzera** animatzen dira, **garraio pribatuaren alternatiba gisa**.

Spot hau datorren ostiralean, ekainak 21, hasiko da emititzen Dbuseko autobusetako pantailetan, Dbuseko webgunean eta Dbuseko zein Bide Indarkeriari Stop elkartearen sare sozialetan.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo deitu 900 840 146 telefono zenbakira.

